

txintxarri



Alprojak, sutara

Lasarteoriarrek gogotik ospatu dute Santa Ana eta San Joakin eguna / 8-9

TXINTXARRI

Inoizko datu onenak webgunean

TXINTXARRI aldizkariaren atari digitaleko trafikoa handitu egin da 2022-2023 ikasturtean, esaterako, bisitetan / 6-7

PSE-EE izan da alderdi bozkatuena Lasarte-Orian; parte hartzea hiru puntu jaitsi da / 2

1.000 euro gastatu ditu herriko komertzioetan Iker Altunak, Aterpearen kanpainari esker / 3

Kultur Kale Zikloa egingo dute Tximistarreta parkean; hiru musika talde ekarriko dituzte / 4

Gotzon Huegunen 'Arbasoak' erakusketa bisita dezakete lasarteoriarrek / 5

San Miguelek eta Arrutik irabazi dute Santa Anako pala txapelketa, Artetxe eta Arteagaren aurka / 10

Duatloi eta triatloi denboraldian murgilduta dabilta hainbat herritar, sasoi betean / 11



**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

600 85 75 86 
www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39
LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



Abuztuan zabalik
08:00
15:00

Goza ezazu udaraz!

GUTIZIAK EGITEKO MAKINA
(Jogurta, browni, flana...)





GAS BARBAKOA



IZOZKI-MAKINA



HAIZAGAILUA
Eramangarria, tolesgarria,
zutikakoa etabirkargagarria



Lasarte-Oriako errolda osatzen duten herritarren %64,69ak bozkatu du. TXINTXARRI

PSE-EEK irabazi ditu hauteskundeak herrian

Espainiako gobernua nork osatuko duen jakiteko itxaron beharko bada ere, emaitzak ikusita, tratugile onenak lortuko du agintea. Etorriko denaren zain, herriko emaitzek maiatzeko joera berretsi dute: EH Bildu da bigarren indarra, EAJ-PNV, hirugarrena

Txintxarri

Normaltasunez eta apenas jende pilaketarik gabe bozkatu zuten lasarteoriatarrek hilaren 23an Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan. Goizeko bederatzietan ireki zituzten herriko hamar hauteslekuak eta 22 mahaietako batzuetan lehen orduan ilarak osatu zituzten

botoa lehenbailehen eman nahi izan zutenek. Eguerdi partean, aldiz, ez zuten ia itxaron beharrik izan ez udaletxean ez kultur etxean zeuden mahaietan.

Hautetsontzi batzuen edukierak erakusten zuen herritarrek parte hartzen ari zirela, eta sentipen bera zuten haien bueltan zeuden ahaldunek: goiza lasai

zihoala eta lasarteoriatarrak botoa ematen ari zirela. Parte hartzeari buruzko lehen datuaren arabera, honakoa zen irudia: 5.315 herritarrek utzi zuten beren boza lehen bost orduetan, erroldaren %36,22ak, 2019ko azaroaren 10eko hauteskundeetan tarte horretan egin zutenek baino %2,65 gutxiagok.

Hurrengo orduetan antzera mantendu zen erritmoa. Barne Ministerioaren datuen arabera, 14.671 herritar deituta zeuden botoa ematera, eta bozketa amaituta, horietako 9.491k parte hartu zuten, egunean bertan hauteslekuetara joanda edo aurreko egunetan posta bidezkoa botoa baliatuta. Batera edo bestera, %64,69ak parte hartu zuten, duela lau urte baino %3,01 gutxiagok. Galdeketarako hautatutako datak zeresanik izan dezake horretan, baina, era berean, nabarmentzekoa da maiatzeko udal hauteskundeekin alderatuta gora egin zuela. Orduko hartan, abstentzioa %42,64 izan zen, igandean baino 7,34 puntu handiagoa.

Sozialistek, gora

Emaitzei dagokienez, PSE-EE izan da beste behin alderdi bozkatuena, 3.437 boto eskuratuta (%36,45). Gora egin du boza kopuru eta ehunekoan, izan ere, duela lau urte 2.985 jaso baitzituen, orduan emandako boto guztien %31,04. Maiatzeko udal hauteskundeetara errepuratuz gero, 67 herritar gehiagok egin du sozialisten alde, orduan, 3.370en babesan izan baitzuten.


Lehenengoan ez, baina bigarren postuan aldaketa izan da; EH Bilduk aurre hartu baitio EAJ-PNVri, udal hauteskundeetako joera berretsiz. Koalizio abertzaleak 2.155 boto eskuratu ditu (+401), nabarmen behera

egin duten jeltzaleek baino 851 gehiago. EAJ-PNVk, aldiz, 1.304 paper batu ditu; duela lau urte 1.920 izan ziren. Bi hilabete atzera eginez, nahiz eta hurrenkera bera den, murriztu egin da bi alderdiak aukeratu dituztenen kopurua. EH Bilduren aldeko 274 boto gutxiago zenbatu dituzte, eta EAJ-PNVren aldeko, 37.

Elkarrekin Podemosen ondorengotzat har daitekeen Sumar-ek, berriz, 1.103 boto lortu ditu, %11,70, aurreko koalizioak baino 539 gutxiago, hala ere, udal hauteskundeetan lortutako emaitza nabarmen hobetu du: maiatzean, 582 boza jaso zituen ELOPek. Joera antzekoa izan da ere PPrek kasuan. Alderdi popularraren 973 boto paper zenbatu zituzten, Espainiako Gorteetarako egindako aurreko galdeketa baino 231 gehiago, eta alderdiak bikoiztu egin du udal hauteskundeetako emaitza, 472. Azkenik, Vox ultraeskuindarrak botoen %0,57 jaso ditu, 293, 2019an baino 49 gehiago.

Alderdi nagusiez gain, 113 herritarrek beste aukera batzuen alde egin zuten, eta halaber, 49 boto zuri eta 64 baliogabe ere zenbatu zituzten.

**BOTOA EMATEKO
AUKERA ZUTEN
14.671 HERRITARREK
ETA 9.491K PARTE
HARTU DUTE**



Iker Altunak eskuratu ditu 1.000 euroak

Hiru orduko tartea izan du Altunak herriko komertzioetan erosketak egiteko. Aterpearen 'Eskuratu 1.000 euro' kanpainaren irabazlea izan da, eta zer eta non erosi ondo pentsatuta agertu da. Auto klasiko batean egin du dendaz denda ibilbidea

Txintxarri

"Pozik eta eskertuta" azaldu da Iker Altuna ibarratara "espero gabeko saria" jasotzera. Bera izan da Aterpea merkatarien elkarteak urte sasoi honetan antolatu ohi duen *Eskuratu 1.000 euro* kanpainaren irabazlea, eta hiru ordu izan ditu irabazitako diru kopuru hori xahutzeko. Auto klasiko batean egin du komertzio batetik besterako bidea, merkatarien elkarteke bi kidek lagunduta.

Merkatarien elkartearen ize-nean, Mabel Pedreirak hitz egin du, eta esan, elkarteak ikasturtean zehar antolatzen dituen kanpaina guztien artean "deigarriena" izan ohi dela 1.000 euro eskuratzearena. Nabarmendu du "harrera ona" izan duela, eta hori eskertu die bertan parte hartu duten guztiei.

Komertzio txikiari babesa

Herriko komertzioari babesa ematen jarraitzea "ezinbestekoa" dela ere azpimarratu du Predreirak, eta gaineratu, komertzio txikirik gabeko herria, herri hila litzatekeela.

Amaitu aurretik, sariduna zoriontzearekin batera, uda ona pasa dezaten opa egin die herriarrei, eta gogorarazi, ikasturte berria hastearekin batera jarriko dutela martxan hurrengo kanpaina.



Iker Altuna (beheko ilaran, eskubitik hasita bigarrena) saria jasotzen. TXINTXARRI



Sariduna auto klasikoaren barruan, erosketak egiteko prest. TXINTXARRI



Irudian ikus daitezke Michelinen eraikiko duten kiroldegia nolakoa izango den. L-O UDALA

Ezohiko bilkura egin du udalbatzak ikasturtea amaitzeko

Ezohiko batzarra egin du udal korporazioak berriki. Sei puntuko gai ordena eztabaidatu dute

Txintxarri

Plan orokorraren hasierako onepenen dokumentua jendaurrean jartzeko epea irailaren 8ra arte luzatzeaz mintzatu dira saioari hasiera emateko. Gaiak ez du eztabaidarik sortu, eta zuzenean bozketa egin dute. Bat etorri dira alderdiak; aho batez onartu dute.

Lasarte-Oriako Michelin kiroldegi berria eraikitzeke obraren proiektuaren onarpenaz aritu dira gero. Gaiarekiko lehen desadostasunak agertu dira, baina aurrera egin du horrek ere; aldeko hamalau boto eta abstentzio bat batu ditu. Horrekin batera, Michelingo kiroldegi berria eraikitzeke obrak kontratatzeke espedienteak abiarazteaz ere aritu dira. Horrek ere aurrera egin du, aurreko puntuaren boto banaketa berarekin (aldeko hamalau, eta abstentzio bat).

Lasarte-Oriako Tokiko Energia Erkidegoaren estatutuak alda-

tzekoa, autokontsumo erregimeneke energia aprobetxatzekoa eta estalkien jabari publikoko emakida Tokiko Energia Komunitatearen aldeko ebazpena onetsi dute gero. Ez du inolako eztabaidarik eragin, eta zuzenean bozketa egin dute. Hau izan da emaitza: aldeko hamalau boto eta abstentzio bat.

Aurrekontuaren Kreditu Gehigarrien 3. Espedienteraren gainean hitz egin dute gai ordenako bosgarren puntuan. Inolako alderdik eztabaidarako tartean azalpenik egin ez duenez, bozketa ekin diote. Aldeko hamalau botorekin eta abstentzio batekin aurrera egin du gaiak. Seigarren eta azken puntuan, berriz, aurrekontua betearazteke araua aldatzeke espedientearen onarritzeaz aritu dira. Zuzenean bozketa jo dute, eta aldeko hamalau botorekin eta abstentzio bakarrarekin onetsita geratu da.



Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia
jarrinahi duzu?
Jar zaitez
gurekin
harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK:
publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66




MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Abuztuan zabalik
goiz eta arratsaldetan

Udan eman zaitez kapritxo bat!

- Manikura eta pedikura
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoak
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pultsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Solariuma
- Ehunen birsortzea eta giharren indartze makina

Uistin Kalea z/g • Tel. 943-37 08 45 • Lasarte-Oria

Kultur Kale Zikloa, toki eta formatu berriekin

Tximistarreta parkean aurrera eramango dute egitasmoa bihar, hilak 29, 18:30etik 22:00etara. Oraingo honetan, musikariak auzo eta data desberdinetan banatu beharrean, guztiak batera ariko dira. Grezian, Iluna eta Luca Grassi & Groove Band izango dira

Txintxarri

Kultur Kale Zikloak itxiko du hilabete eta ikasturte honetako kultur agenda. Xpressionk kultur elkarteko kide Jokin Telleriak, Agustin Valdivia alkateak eta udaleko kultura teknikari Jon Martinek eman dute xehetasunen berri. Aurreko urteetan ez bezala, eskaintza musikala beste toki batean egingo dute, Tximistarreta parkean, formatua aldatuta: hiru taldek egun bakarrean joko dute, bihar zehazki, hilak 29, 18:30etik 22:00etara. Grezian, Iluna eta Luca Grassi & Groove Band izango dira.

Biharko iragarpena ez da ona, baina Telleriak esan du Kultur Kale Zikloa aurrera eramateko asmoa dutela; bertan behera uztekoan, "oso eguraldi txarra" egin beharko du. "Hori dauka horrelako egitasmoak hemen antolatzeak, aurtengo udaran zalantza hauekin gabiltza". Antolatzaileak gogoratu duenez, egitasmoaren helburua Lasarte-Orian barrena kultura musika sustatzea da. "Auzo askotara eramán ditugu taldeak, baina dinamikari buelta bat ematea erabaki dugu, proba bat egitea; uste dugu musikari guztiak toki berean egun bakarrean aritzeak ikus-entzule gehiago erakarriko dituela".



Ezker-eskuin: Jokin Telleria, Agustin Valdivia eta Jon Martin, Tximistarretan. TXINTXARRI

Alkateak esan du uztailko eta ikasturteko agenda ixteko ekimen "ezin hobea" dela Kultur Kale Zikloa, "plan polit bat" eskaintzen dielako herritarrei eta estilo desberdinetako musika generoak uztartzearen bidez haiekiko zaletasuna hauspotzen duelako.

Estilo nahasketa

Esan bezala, aurtengo zikloan joko duten taldeak Grezian, Iluna eta Luca Grassi izango dira. Hiruak, Donostialdekoak. Telleriak azaldu du lehenengoek rock bertsio ezagunak jotzen dituz-

tela, duela 40-50 urtekoak. Ilunako lagunek, berriz, rock melodikoa egiten dute, euskaraz. "Lasarte-Oriarekin lotura dute, hemengo estudio batean grabatu izan dutelako". Programa itxiko dutenak, gazteak izanagatik, inguruko eszenan "denbora ugari" daramatela argitu du Xpressionk-ko ordezkariak. "Musika oso freskoa jotzen dute, funk eta disco estiloak modu dibertigarri batean nahastuta".

Antolatzaileek herritarrak gonbidatu dituzte bertaratzera. Sarrera doakoa da.



Ezker-eskuin: Ainhoa Etxebarria, Intza Alkain eta Itziar Urretabizkaia. DONOSTIA KULTURA

Intza Alkain, 'Baginaren bakarrizketak' antzezlanean

Ainhoa Etxebarria eta Itziar Urretabizkaiarekin batera ariko da herritarra, Donostiako Antzoki Zaharrean, abuztuan

Txintxarri

Eve Ensler idazleak 1996an estreinatu zuen *Baginaren bakarrizketak* izeneko antzezlan. Maila kultural eta sozial desberdinetako 200 emakume ingururekin izandako solasaldietan oinarritu zen ikuskizuna sortzeko. Elkarrizketa horietan baginarekin zerikusia zuten gai askori buruz hitz egin zuten: harreman sexualak, masturbazioa, hilekoa, erditzea, eta abar.

Handik urte batzuetara, 2011n, Txalo Produzioak taldeak Euskal Herrira ekarri zuen antzezlana hori, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean eta Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai aktoreekin. Orduz geroztik makina bat emanaldi egin dituzte eta aktoreak aldatu dira. Horren erakusgarri, aurtengo abuzturako programatu dituzten lauak, hirukote honen eskutik: Ainhoa Etxebarria, Itziar Urretabizkaia

eta Intza Alkain, lasarteoriatarra azken hori. Abuztuaren 17tik 20ra ariko dira Donostiako Antzoki Zaharrean, ostegunetik igandera, 20:00etatik aurrera, euskaraz. Sarrerek 20 eta 26 euro artean balio dute eta Donostia Kulturaren atari digitalean eros ditzakete interesa dutenek.

Emakumeen sexualitatea

Etxebarriak, Urretabizkaia eta Alkainek elkarrizketatutako emakumei ahotsa emango diete; poesia, umorea, barrea, samurtasuna eta probokazioa bezalako baliabideak erabiliko dituzte horretarako.

Euskal Herrian nahiz beste toki askotan behin eta berriro antzeztutako komedia horren bidez, emakumeen sexualitatea azaldu eta moldeak apurtzen dituzte, eztabaida pizten eta dinamika berriak sortzen, lotzarik gabe.

Magia lokarri gisa erabili du Jon Zabal magoak, Okendo plazan

'Kale antzerkia bultzatuz' zikloaren aurtengo azken emanaldia aurrera eramán dute, 'Nexo' magia ikuskizuna

Txintxarri

Tarota, irakurketa psikikoak, sendatzea. Horiek jasotzen zituen Okendo plazan jarritako aulkien aurrean zegoen arbelak, eta denak izan zituen Jon Zabal magoaren *Nexo* ikuskizunak. *Kale*

antzerkia bultzatuz egitasmoak hilaren 21ean herrira ekarri zuen mentalista bilbotarra, eta saio parte hartzaile bat aurrera eramán zuen zabalgunera joandako helduetako batzuen laguntzarekin.

Hiru boluntario izan zituen ia emanaldi osoan zehar eta haiek aukeratutako karta asmatzeaz gain, hurrenez hurren, iraganeko, orainaldiko edo etorkizuneko kontu bana ere iragarri zien. Giro berezia sortuz, plazan zeuden ikus-entzule guztien arreta bereganatu zuen Zabalek eta trikimailu batzuekin aho bete hortz utzi zituen ikusleak, esaterako, emakume batek bizar labana lepotik pasatu eta zauririk egin ez zionean.



Jon Zabal magoa, eszenatokira atera zuen boluntario batekin. TXINTXARRI



Gotzon Huegun bere artelan bat sortzen. Zura da bere obrak egiteko erabiltzen duen materiala. GOTZON HUEGUN

'Arbasoak' erakusketa zabaldu du Gotzon Huegun lasarteoriatarrak

Eskultore lasarteoriatarrak 'Arbasoak' izeneko erakusketa aurkeztu berri du. Gizakiak naturarekin duen harremana erakutsi du ikusgai jarritako hamasei artelanen bidez. Irailaren 30era arte izango dute interesdunek erakusketa bisitatzera joateko aukera

Txintxarri

Hamar urteko "esperimentazio lanaren" emaitza da Gotzon Huegun herritarrak osatu duen *Arbasoak* erakusketa. Hilaren 7an aurkeztu zuen, Donostian, eta irail amaierara arte izango da hori ikustera joateko aukera.

Guztira, zuzaz egindako hamasei artelanez osatua dago, eta gizakiak naturarekin duen loturaren erakusle diren eskulturak, muralak eta likenak ikus ditzakete bisitariak. Hain zuzen ere, egileak basoarekin duen harremanaren erakusle dira obra horiek guztiak: "Basoa oso lotuta dago nire bizitzarekin haurtzarotik heldutasunera arte". Horrela, ingurune naturala bere esentziatik bereiz ezin daitekeen osagai gisa aurkeztu du artelanen bidez.

Hortik izendatu du erakusketa *Arbasoak* izenarekin; basoaren eta herritarraren sustraien arteko bizitza harremanari eskainitako omenaldia da. Huegunek kontaktu du arbaso horiek zuhaitzak moztzen aritzen zirela, eta hortik bildutako egurra baliatzen duela berak artelanak egiteko: "Nire izatearen sakontasunarekin konekta naitekeen lekua da". Erakusketak, hortaz, moztutako zuhaitzetatik egindako muralak eta eskulturak erakusten ditu, eta lotura sinbolikoa ezartzen du egilearen

**GIZAKIAK
NATURAREKIN DUEN
HARREMANA
ERAKUSTEN DU
ERAKUSKETAK**

arbasoen eta bere sorkuntza artistikoaren artean. Bide horretatik, testuinguru artistiko "sotil, zintzo eta garaikide" baten barruan zurezko tailuen diziplina berreskuratzea, eguneratzea eta kokatzea erakusten du.

Erakusketa, Donostian

Honako obrak ikusteko aukera izango dute erakusketa bisitatzera joaten direnek; geroaldioak, likenak, pitzatutako motzondoak eta udazkeneko euriak, besteak beste. Elementu horien edertasuna eta naturak oparitzen dituen sentsazioak atzematen ditu artistak. Hilaren 7an aurkeztu zuen erakusketa, eta irailaren 30era arte izango da hori bisitatzeko aukera. Donostiako Zaragoza Plazako 3. zenbakian jarri du ikusgai.



Auzotar batzuk, gustura dantzan, beste batzuek musean jokatu bitartean. TXINTXARRI

Saninazioak ospatuko dituzte Basaundiko auzotarrek

Gipuzkoako zaindariaren omenezko jaiak bihar eta etzi izango dira, hilak 30 eta 31. Egitarau oparoa prestatu dute

Txintxarri

Karmenak Orian, eta saninazioak Basaundin. Gipuzkoako zaindariaren omenezko jaiak ospatuko dituzte auzo horretako lagunek bihar eta etzi, hilaren 30ean eta 31n. Horretarako, egitarau oparoa prestatu du La Esperanza elkarteak, zenbait eragilerekin elkarlanean. Programaren xehetasun guztiak aldizkari honetako *Agenda* sailean kontsulta ditzakezue, 15. orrian.

Txalapartarien doinuekin hasiko dira jaiak, etzi. 13:00etan ariko dira, auzo horretako plazan. Iluntzera arte makina bat

ekimen gehiago etorriko dira atzetik: paella jana, mus txapelketa, haurrentzako jarduerak (apar festa eta ur jolasak), zumba eta bodycombat saioa, Oaintxe in deu! txarangaren emanaldia eta Ibai Berriak taldearen kontzertua.


Zaindariaren egunean ere ez dute aspertzeko aukerarik izango herritarrek: martxa erregulatua, txistularien diana, meza, buruhandiak, aldibereko xake partidak, patata tortilla txapelketa eta DJ Naken-en saioa dira egitarauko jarduera nabarmenetako batzuk.



TXINTXARRI

Oriarte ere bete dute

Okendo Zinema Taldearekin elkarlanean, Ihitten elkarteak *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* dokumentala proiektatu du, udako zinema zikloaren barruan. Proiektzioa Okendo plazan egitekoak ziren, baina, eguraldi txarra tarteko, Oriarte institutuaren Landaberri eraikineko patiora eraman zuten. Harrera oso ona izan zuen, ulki bakar bat ere ez zelako hutsik geratu.



Ikasturte honetako bisita gehienak ekainean izan genituen; guztira, 50.888. TXINTXARRI/FLORISH

Atari digitaleko trafikoa, inoiz baino handiagoa

TXINTXARRI aldizkariaren webguneko datuak neurtzen ditugunetik, inoiz baino bisita, erabiltzaile eta saio gehiago izan ditu atari digitalak 2022-2023 ikasturtean. Kurtsoko hamar eduki ikusienetatik bost sanpedroei eta Euskararen Maratoialdiari buruzkoak dira

Txintxarri

Eskerrik asko, irakurleok. Normalean artikuluen amaierarako uzten ditugu eskertza mezuak, baina oraingo honetan bukatetik hasi nahi dugu. Izan ere, zuen guztion konfiantzarik gabe, ezin izango genuke titularrera eramane duguna baieztatu: 2022-2023 ikasturtekoak izan dira www.txintxarri.eus atari digitaleko datu onenak, trafikoa neurtzen hasi ginenetik, duela sei urte –Google Analytics 4 izeneko tresna erabiltzen dugu horretarako–. Denbora horretan guztian izugarria izan da bisita, erabiltzaile, hasitako saio eta gainerako adierazlen bilakaera, horietako gehienak bikoiztu edo hirukoizteraino. Beraz, esan bezala, eskerrik asko.

Hasteko, ikusitako orrialdeen kopuruan jarriko dugu fokua, hau da, bisitetan. Hilaren 26ra arteko datuak eskuetan, 330.573 izan dira –hilaren 27ra arteko datuak–, iaz baino ia %17 gehiago (283.931). Zentzu horretan,

kurtsoko hilabete oparoenak, aldeetatik gainera, aurtengo ekaina eta iazko urria izan dira: 50.888 eta 48.510 bisita jaso ditugu, hurrenez hurren. Horretan zerikusi zuzena izan dute, besteak beste, sanpedroek eta Sorgin Jaiek eta Euskararen 10. Maratoialdiak. Geroago sakonago jorratuko dugu gaia, baina ez da kasualitatea ikasturteko hamar eduki ikusienetako erdiak bi gai horiei buruzkoak izatea; irakurleen artean ikusmin handia piztu dutela argi eta garbi dago.

Arestian aipatutako bisita horiek guztiak 54.533 erabiltzailek egin dituzte, joan den ikasturtean baino %13 gehiagok (48.444 izan ziren). Beraz, irakurle gehiagok orrialde gehiago ikusi edo bisitatu dituzte. Horretarako, nola ez, saio gehiago hasi behar izan dituzte TXINTXARRI-ren atari digitalean; zehazki, 141.687 (2021-2022an 121.666 izan ziren, %17 gutxiago). Bisitari bakoitzak, batez beste,

%3,4 saio gehiago hasi ditu aurtengo kurtsuan (2,5 iaz eta 2,6 aurtun) eta irakurraldi horietako bakoitzean bi orri pasatxo ikusi ditu (pasa den kurtsuan bezainbeste, 2,3), bi minutu eta 37 segundotan. Azken datu hori aintzat hartuta, herritarren nabigazioak bi segundo luzeagoak izan dira.

Festa kutsukoa, ikusiena

Saio luzeago horietan, bada, zer irakurri dute nabigatzaileek? Ikasturtero bezala, hamar eduki ikusienak zeintzuk izan diren aztertu dugu, eta, datuen arabera, irakurleen artean jakin-min gehien piztu dutenak herriko jaiei eta Euskararen 10. Maratoialdiari buruzkoak izan dira;

IRAKURLEEK, BATEZ BESTE, BI MINUTU ETA 37 SEGUNDO IGARO DITUZTE GURE WEBGUNEAN

bisitatuenak izan diren artean erdiak, hau da, bost artikuluko. Ikustaldi gehien izan dituen Lasarte-Oriako Udalak eta herriko zenbait eragilek sanpedroetarako elkarlanean prestatu zuten egitarauari buruzko notizia izan da; guztira, 2.011. Zerrenda horretako hirugarren eta laugarren informazio piezak ere jai horiei buruzkoak izan dira, 90. hamarkadako festen argazki galeria bilduma (1.052 bisita) eta kontzertu nagusien iragarpena (943). Bestalde, Euskararen 10. Maratoialdiari buruzkoak (1.464) eta 42 egun iraun zituen ariketaren lehen urrats horren amaierako kronika (741) bigarren eta zortzigarren irakurrienak izan dira, hurrenez hurren.

Lehen aipatu ditugun bi gai horiei buruzkoa ez den lehen artikulua zerrendako bosgarrena da, Esti Garmendia Arrieta EH Bildu alderdiaren Lasarte-Oriako alkategai izendatu zutenekoa, hain zuzen ere. 899 bisita izan ditu. 800 pasatxo izan ditu baita ere kurtsoko hasieran Elektropottotte elektrotxaranga egin genion elkarrizketak (821). Oso kontsultatuak izan dira baita ere Inauterietan eta Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiarekin zerikusia izan duten pare bat albiste; horietako bat, Oriarte institutuko ikasleek aurrera eramane zuten *lip dub*-a (775), eta, bestea, korrikalari gaztetxoek Korrika Txikian jotatutako lasterketen argazki bilduma (721). Azkenik, rankinga ixten duen albiste, hamargarrena, Gazte Koordinadora Sozialistaren (GKS) Lasarte-Oriako taldearen sorrerarena da (651).

Erronka, hazten jarraitzea

Elkarrekin lortu duguna ez da batere makala, irakurle; beste behin ere, eskerrik asko. Edonola ere, erronkak gustatzen zaizkio lantalde honi eta horregatik jo eta ke jarraituko du lanean, Lasarte-Oriaren berri gertutasunez eta euskaraz ematen jarraitzeko, horretarako kalitatezko edukiak sortuta.

Zeregin horri eta beste askori indarrez gainezka heltzeko, abuztuan pilak kargatuko ditugu eta irailean itzuliko gara, 8an kaleratuko dugun aldizkariarekin. Bitartean, ongi dakizuen moduan, www.txintxarri.eus atari digitalean izango duzue herrian gertatzen denaren berri. Udara on guztioi!




Sanpedroak, ikusienak. TXINTXARRI

Errepasorako edukiak, abuztuan

Irailetik uztaiera arteko 11 bideo prestatu ditu TXINTXARRI-k, hilabete horietako bakoitzeko hamar eduki ikusienak zeintzuk izan diren erakusteko. Abuztuan zehar argitaratuko ditugu www.txintxarri.eus atari digitalean, eta baita kurtsoko hamar artikuluko bisitatuenei buruzko beste bat ere. Kurtsoko oparoa eta gertakariak betetakoak izan denez, horren isla izango dira lantzen ari garen ikus-entzunezkoak. Sakelako telefonoa hartu eta beheko QR kodea eskaneatu, webgunean publikatuko ditugun eduki berezi horiek ikusteko.

Bestalde, herriko zenbait norbanako eta eragilerekin jarri gara harremanetan, abuztutako gomendio zerrenda bat prestatzeko. Momentuz, aurreratu dezakeguna da Maialen Aristegi kantautoreak abesti sorta eder bat proposatu digula, udaran lasai eta gustura entzuteko. Aurrerago emango ditugu horri buruzko berri gehiago.



2022-2023 ikasturteko irakurrienak



Egitarauaren aurkezpena. TXINTXARRI

1. Sanpedroetako egitaraua aurkeztu dute udalak eta eragileek (2.011 ikustaldi)

Lasarte-Oriako Udalak eta herriko zenbait eragilek egitarau oparoa prestatu zuten aurtengo San Pedro Jaietarako. Horri buruzko albistea izan da ikasturte honetako irakurriena.



2016ko Maratoniaren hasiera. TXINTXARRI

2. Sentitu fasearen programazioa (1.464 ikustaldi)

Euskararen 10. Maratonia hastear zela-eta, Sentitu izeneko lehen faseko programazioa artikulu batean jaso genuen, urriaren 22 eta 23ko asteburukoak.



1994ko Sorgin Dantza. TXINTXARRI

3. Nolakoak izan ziren 90. hamarkada amaierako sanpedroak? (1.052 ikustaldi)

Artxibo historikoa arakatu zuen TXINTXARRI-k, 1994tik 1999ra arteko herriko festak herritarrek nola ospatu zituzten gogoratzeko, argazki galerien bidez.



Zale bat, kontzertuaz gozaten.

4. Sanpedroetako kontzertu nagusiak iragarri ditu udalak (943 ikustaldi)

Ikasturteko ikusien artean herriko festei buruzko beste artikulu bat, kasu honetan, udalak sanpedroetarako programatu zituen kontzertu nagusiei buruzkoa.



Esti Garmendia Arrieta. TXINTXARRI

Esti Garmendia Arrieta izango da EH Bilduren alkategaia (899 ikustaldi)

Agerraldia egin zuen Lasarte-Oriako EH Bilduk joan den urteko urri hasieran, maiatzeko udal hauteskundeetarako alkategaia nor izango zen iragartzeko: Esti Garmendia Arrieta.



Elektropottote taldea. ELEKTROPOTTOTTE

6. Elektropottote: "Emakumeok plaza hartzea izan da lehentasuna" (821 ikustaldi)

Elektrotaranga eratu eta gutxira, emakumez osatutako Elektropottote taldea elkarrizketatu genuen, sorrerari eta esku artean zuten guztiari buruz hitz egiteko.



Inauteriak Oriarten. ORIARTE BHI

7. Oriarteko ikasle eta irakasleen 'lip dub'-a Inauterietan (775 ikustaldi)

Oriarte institutuko Euskara Batzordeko ikasleek antolatuta, zentro horretako kide asko animatu ziren Inauterietan girotutako *lip dub* dibertigarri eta original bat egitera.



Amaierako festa, Okendon. TXINTXARRI

8. Maratoniadiko Sentitu faseari buruzko amaierako kronika (741 ikustaldi)

Sentitu fasearekin hasi zen Euskararen 10. Maratonia, urriaren 22 eta 23an. Bi egun horietan jasotakoarekin egindako artikuluak ikusmina sortu zuen irakurleen artean.



Lasterketetako bat. TXINTXARRI

9. Gaztetxoek hartu dute helduen lekukoa krosean (720 ikustaldi)

Helduen lasterketak bukatu eta sariak amaitu bezain laster izan zen gaztetxoaren txanda, Korrika Festan. Jokatu zituzten probetako argazkiekin erreportaje bat egin genuen.



GKSren aurkezpen agerraldia. TXINTXARRI

10. Lasarte-Oriako GKS aurkeztu dute, Gaztelekuan (651 ikustaldi)

Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) Lasarte-Oriako taldea aurkeztu zuen Gaztelekuan. Egungo testuingurua aztertu eta horri aurre egiteko proposamen batzuk partekatu zituzten.

Azken egunak txokoetan

Ttakun Kultur Elkartearen udako txokoetan parte hartzen ari diren gaztetxoak hilabete honetako azken abenturak bizitzen ari dira. Hilaren 26an, adibidez, talde batzuk pirataz moztarotuta eta haien bizitza onena dela erakutsi zuten Okendo plazan.

Gaurkoa izango da azken eguna, hilak 28. Azken festa egingo dute enparantza horretan bertan.



Santa Ana ospatu dute

Jarduera ugari aurrera eramán dituzte hilaren 26an eta aurretik



Buenetxea tabernako jabe Yoli Palomares, Santa Anako pintxoak eskuetan. TXINTXARRI



Brigitarren komentuan batu ziren fededunak, zaindariaren omenezko elizkizunean. TXINTXARRI



Herritar ugari ikusi eta erosi zituzten artisau azokako postuetako produktuak. TXINTXARRI



Buztinarekin eskuak zikindu eta poto bat egitera ausartu zen haur hau. TXINTXARRI



Santa Anako aurtengo parodian parte hartu zuten aktore, dantzari, gidoilari eta antolatzaileek talde



Meza eta gero, hamaietako ederraz gozatu ahal izan zuten bertaratu zirenek. TXINTXARRI



Urtero bezala, eguerdian aureskua dantzatu zuten Erketz EDTko dantzariak Santa Ana karkaban. TXINTXARRI



argazkia atera zuten desfileari ekin aurretik. TXINTXARRI

Santa Ana eta San Joakin eguna hilaren 26a izanagatik, ospakizunak hiru egun lehenago hasi ziren, artisau azoka eta Aterpea merkatarien elkarteak antolatutako pintxo ibilbidetxo batekin. Hamar janari postu jarri zituzten Mercero plazan eta artisautzako hamazazpi Okendon. Horrez gain, egun horretan zehar aurrera eramane zituzten tailerretan erroskillak edo buztinazko potoak egiteko aukera izan zuten haurrek. Azoka nahikoa ez balitz, Santa Ana pintxoak biribildu zuen igandeko plana. Bost tabernak parte hartu zuten aurtan: Hiru Aldeta, Buenetxea, Herriko Etxea, Plan B eta Arima. Guztiek bakailaoa eta piperra zituzten oinarri, bakoitzak bere erara prestatua, eta 2,5 eurotan dastatu ahal izan zuten lasarteoriatarrek.

Santa Ana eguna, bestalde, mezarekin hasi zuten herritarrek; Brigitarren komentuan batu ziren fededunak, zaindariaren alde otoitz egiteko eta hori amaitu ostean, luntx eder batez gozatu zuten komentu aurreko plazan. Gero, ohi bezala, Erketz EDTko kideek aureskua dantzatu zuten Santa Ana karkaban; arin-arin eta fandango bana ere ez ziren falta izan.

Arin desfilatu zuten parodian parte hartu zuen kuadrillako kideek: aktore, dantzari, gidoilari eta antolatzailerak. Urteroko talde argazkia atera ostean, Hipodromo etorbidea zeharkatu zuten aurrena, Kale Nagusian lehen geldialdia egiteko. Erketz EDTko musikarien doinupean, kantu eta dantza egin zuten, giro ederra sortuta, nahiz eta atzetik zetozen suhiltzaile bihurriak hori itzaltzen saiatu ur pistolekin.

Ibilbidea Okendo plazan amaitu zuten, eta minutu batzuetara hasi ziren aktoreak oholtzara igotzen, parodia antzetzeko. Aurtengo akusatuak Edermira Etxefranko Enkantenazkante eta Bitcoin Letragutxi Ziberxolomo izan dira. Epaiketako une batzuetan libratuko zirela zirudien arren, sutara kondenatu eta garretan erre zituzten.



Michelin Lasarte lantegiko enpresa batzordea omendu dute aurtan. TXINTXARRI



Defentsa abokatua eta bi akusatuak, Santa Anari errukia eskatzen. Ez zuten eraginik izan. TXINTXARRI



Txapeldunak, txapeldunordeak (Iker Artetxe barne) eta udal ordezkaria, Kirol zinegotzi Goizalde Pildain. TXINTXARRI



Azken tantoetara arte, ez zen 3. postua erabaki. TXINTXARRI

San Miguelek eta Arrutik jantzi dute txapela

Final borrokatuan, Julen San Miguel-Asier Arruti bikoteak Jon Pello Artetxe eta Xabier Arteaga garaitu dituzte, 24-30. 3. postua eskuratzeko lehia ere estua izan da; Julen Urruzola eta Eneko Sarasola Tomas Pagoaga-Martin Zelaia bikoteari gailendu zaio, 28-30

Txintxarri

40. Santa Ana Pala txapelketako garaileak erabaki ziren hilaren 26an. Pala jaialdi ederra izan zen. 3. postuko neurketan ikusle gutxi bazegoen ere, finala iritsi orduko harmailak bete ziren.

Hilaren 20ko finalerdien ostean, final handia eta hirugarren postuako bikoteak erabaki ziren. Artetxe anaiak eta Julen San Miguel eta Asier Arruti bikoteak gailendu ziren bi partidetan eta finalerako txartela eskuratu zuten. Hirugarren postua, aldiz, Jagoba Mendizabal-Julen Urruzola eta Pagoaga aita-semeen artean erabaki behar zen.

Bi neurketak jokolari aldaketengatik baldintzatuta egon ziren, ordea. Belauna mindua izateagatik, Iker Artetxek ezin izan zuen finala jokatu eta laneko kontuak medio, Jagoba Mendizabalek eta Beñat Pagoagak ezin izan zuten hirugarren postuko lehian egon. Mendizabalen lekua hartu zuen Eneko Sarasolak eta Pagoagaren ordezkari izan zen

Martin Zelaia; finalean, aldiz, Xabier Arteagak hartu zuen Iker Artetxeren lekua.

Gauzak horrela, lehen neurketan zirrargarria izan zen; Julen Urruzola eta Eneko Sarasolak neurketari itzulia eman zioten. Urdinez zeuden Tomas Pagoaga eta Martin Zelaia bitan aurre hartu eta garaipena erdietsiko zutela zirudien arren, gazteek ongi erantzun zieten; pixkanaka errenta txikitzen joan ziren aurkariaren akatsak itxaroten edo ongi jokaturako tantoak eginez. 26na berdindu ostean, urduritasun handiko minutuak bizi izan ziren bikoteek 27na eta jarraian 28na berdindu zutenean. Azken bi tantoak gorrien aldekoak izan ziren eta Urruzola-Sarasolak eskuratu zuten hirugarren postua.

Final borrokatur

Erketzeko kideek agurra dantzatu eta final handiaren txanda izan zen. Julen San Miguel eta Asier Arrutik, urdinez, eraman zuten garaikurra. Jon Pello Artetxek

eta Xabier Arteagak ez zieten lan erraza jarri, ordea. Tanto politak ikusi ziren eta atzelariek lan ederra egin zuten, nahiz eta pilotekin gorabeherak izan zituzten.

Urdinak jarri ziren aurretik lehen tantoetan eta gorriek amore emango ez zutela erakutsi zuten 9na berdintzean. Hala ere, San Miguel-Arruti bikoteak erantzun eta aldea ireki zuten 14-19ra arte. Orduan, San Miguelen akats batzuek eta Artetxek eta Arteagak ongi amaitutako tantoek norgehiagoka berdintzea ekarri zuten, 20-20. Tanto luzeak eginez, atzelariek hartu zuten pisua azken minutuetan eta aurkariaren akatsaren edo dejada egiteko aukeraren bila egon ziren bikoteak. Urdinek eraman zuten gehienetan saria, eta, beraz, 24-30 gailendu ziren.

Bi norgehiagokak amaitzean, txapeldunek eta txapeldunordeek finala jokatu ezin izan zuen Iker Artetxe barne- kirol zinegotzi Goizalde Pildainen eskutik jaso zituzten sariak.



Erketz EDTko kideek agurra dantzatu zieten jokalariei. TXINTXARRI



Final nagusian, gogor aritu ziren lehian. TXINTXARRI

Herritarrak, triatloi eta duatloi denboraldian

Martxotik uztaiera, Lasarte-Oriako atletak eta Trinko Triatloi taldeko kideak hainbat probatan izan dira lehiak distantzi motz zein luzeetan. Eguraldia edo uraren temperatura alde batera utzi eta ez dute etsi. Batzuk lehen postuetan izan dira

Txintxarri

Duatloiak, triatloiak, Ironman probak... Lasarte-Oriako atletak martxotik hona hainbat proba lehiatu dituzte.

Probaz proba herritarrak euren helburuak betetzeko prestatzen joan dira denboraldian zehar.

Duatloietan fin

Duatloi modalitateak motorrak berotzeko balio izan zien batzuei. Martxoan eman zioten hasiera batzuk Añorgako II. Duatloierekin, martxoaren 17ko zenbakian berri eman genuen modura. Zumeatarra taldeko Andoni Illarramendi izan zen herritarren artean azkarrena (01.14.11).

Hilaren amaieran, Oñatiko duatloiarri egin zioten aurre Trinkoko Imanol Arteagak (02.11.09) eta Iurgi Los Arcosek (02.22.38).

Apirilaren Zuian hasi zuen hilabetea Arteagak (03.51.32) eta amaitu, berriz, Azkoitiko duatloian (02.14.13) estandar modalitatean. Azken horretan, Zumeatarra taldeko Mainer Lizarragak ere parte hartu zuen (02.42.41).

Hil horretako 22an, Zizurkilgo II. duatloia ere jokatu zuten. Bertan izan zen Zumeatarra taldeko Andoni Illarramendi (01.02.03) eta Ibai Izagirre (01.06.58) herritarrak ere. Egindako markari esker, Illarramendik baterano mailako lehen postua eskuratu zuen.

Triatloi ugari

Beste askok triatloien garaiera arte eutsi zioten lehiak hasteko. Maiatzeko lehen asteburuan, hilaren 6an zehazki, Hondarribiko Sprint Triatloia izan zen lehena. Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza (01.10.33), Ibai Izagirre (01.21.34) eta Mainer Lizarraga (01.34.35) herritarrek zein Trinko taldeko Mikel Izagirre (01.25.54) helmugako marra gainditu zuten. Sukunzak gainera 23 urtez azpiko podiumean izan zen, hirugarren mailan.



Trinkoko Mikel Izagirre (erdian), Onditz oroimenezkoan lehiak. FESTAK.COM

Hil horretako 22an, Getarian izan zen lehiak Zumeatarra taldeko Sukunzak (01.03.22) eta Izagirrek (01.13.13) berriz ere bat egin zuten. Horiekin batera Andoingo taldeko kide Unai G. Somovilla (01.17.14) eta Trinkoko Hartz Mitxelena (01.16.46) herritarrek amaitu zuten proba. Lasarte-Oriako taldeko Mikel Izagirre, aldiz, proba utzi behar izan zuen.

Ekainaren 6an, Trinkoko Imanol Arteaga (04.31.40), Zigor Gallardo (05.05.43) eta Sergio Sierra (05.29.25) kideek VI Halk Gasteiz proba gainditu zuten.

Aste bete geroago Zarauzko Triatloia lehiatu zuten. Zumeatarra taldeko Andoni Illarramendi (04.46.41) eta Mainer Lizarraga (05.22.59) izan ziren borrokan baita Añorga taldeko Igor Corcuera (05.40.06) herritarra.

Eta ekainari amaiera emateko bi jardunaldi izan ziren Donostian, Emakumeen Triatloia eta Donostiako Triatloia - Onditz Oroimenezkoa.

Lehenean, besteak beste, Mainer Galardi Fernandez de Agirre herritarrak parte hartu zuen. Bigarrenean, aldiz, ordezkaritza zabalagoa izan zen; Trinko taldeko Imanol Arteaga (02.17.01), Mikel Izagirre (02.31.32) eta Pablo Muñoz (02.35.24) zein Añorgako Corcuera (02.38.38) eta Zumeatarra taldeko Ibai Izagirre (02.25.34). Andoingo taldeko kide Mainer Lizarraga kategoria hasi zuen, baina ezin izan zuen amaitu.

HELBURUAK BETETZEKO PROBA EZBERDINETAN PARTE HARTUZ PRESTATZEN JOAN DIRA



Arteaga (ezkerrean) eta Gallardo (eskubian), probetan. IRONCAT - B. DELA SOTILLA VENTURA / Z. GALLARDO

Arteaga eta Gallardo distantzia luzeekin ausartu dira

Triatloia edo duatloiaz gain, Ironman probei ere aurre egin diete aurtan Trinko Triatloi Taldeko bi kidek: Imanol Arteaga eta Zigor Gallardo. Distantzia luzeeko proba horrek hiru atal izan ohi ditu igeriketa (3,8 km.), txirringa (180 km.) eta korrika (42,2 km.)

Maiatz erdialdean, hilaren 13an, zehazki, Arteagak Ironcat - L'Ampolla gainditu zuen. Tarragonako L'Ampolla herrian kokatutako lehiaketan 82 parte hartzaile bildu ziren irteera puntuan eta seik ez zuten helmuga zeharkatu. Arteagak, aldiz, hogeitabatgarren postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean eta baterano 1 mailan, hamargarren izan zen. Igerian ongi moldatu zen

eta hamargarren iritsi zen lehen trantsizio puntura (58.01), bigarren zatian 05.16.32 eginez atzera egin zuen sailkapenean eta azken atalean, lasterka ongi eutsi zion postuari. Guztira, 9 ordu 47 minutu eta 36 segundo behar izan zituen herritarrak.

Gallardok, bestalde, Gasteizko proban parte hartu zuen, uztaieraren 16an. 1.500 atleta bildu ziren Uribarri-Ganboa urtegiko Landa hondartzan, Arabako hiriburua eta Agurain arteko ibilbidea hiru alditan txirringan egin eta Gasteizko erdigunean amaitu zuten bidea korrika. Trinkoko kideak guztira 12 ordu, lau minutu eta 28 segundo behar izan zituen proba egiteko; atalka 01.10.05, 05.43.59 eta 04.58.02 izan ziren bere markak.

Sukunza, Euskadiko bigarren

Ekainaren 17an, 30. Lekeitioko Triatloia lehiatu zuten eta bertan Sprint modalitateko Euskadiko Txapelketa ere izan zen jokoa.

500 bat kirolari bildu ziren Lekeitio, Bizkaian eta horien artean, Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza eta Ibai Izagirre herritarrak eta Trinko taldeko Mikel Izagirre izan ziren lehiak.

Parte hartzaileek 750 metroko igerialdia egin zuten lehenik. Ostein, bizikleta gainean 21 kilometroko ibilbideari aurre egin zioten eta helmugara iritsi baino lehen bost kilometro lasterka egin zituzten. Probako azken zatian eguraldiari aurre eginez, ederki jardun ziren guztiak.

Sukunza lehen postuetan izan zen; hamargarren postuan amaitu zuen proba eta 01.02.39ko marka eginez, 23 urtez azpiko Euskadiko txapelketa ere izatea lortu zuen.

Ibai Izagirrek 01.14.09 behar izan zituen helmugara iristeko eta Mikel Izagirrek, aldiz, 01.16.45.



Sukunza, garaikurrarekin. G. GOMEZ


Herritarrak ederki, igerileku zein itsasoan

Buruntzaldea IKTKo Garazi Etxeberria eta Bidasoa XXI taldeko Leire eta Ainhoa Martin Open eta Junior mailako Espainiako txapelketa lehiatzen ari dira. Ainhoak brontzezko domina jantzi du lehen egunean. Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian ere herritar ugari izan da lehian

Txintxarri

Igeriketako Open zein junior mailako Espainiako txapelketa hilaren 26an hasi zen eta hiru lasarteoriatar ari dira lehian: Buruntzaldea IKTKo Garazi Etxeberria eta Bidasoa XXI taldeko Leire eta Ainhoa Martin ahizpak; proba ezberdinetan parte hartuko dute hirurek. Finaletan izan dira azken biak, baita dominak jantzi ere.

Lehen jardunaldian, Ainhoa Martinek 200 m. bular proba lehian zuten eta Leirek eta Etxeberriak, aldiz, 50 m. bizkar probari egin zioten aurre. Ainhoak A finale-rako txartela eskuratu zuen eta bertan brontzezko domina jantzi



Etxeberria, lehian. TXINTXARRI

zuen (02.33,29); Leirek, aldiz, B finalean jardun zuen (29,94). Etxeberriak 32.79 marka egin zuen.

Hilaren 27an, Etxeberriak 30 metro libre eta Leirek 200 m. biz-

kar probetan parte hartu zuten. Etxeberriak 28.03ko marka egin zuen; Leirek, B finalerako txartela eskuratu zuen. Zenbaki hau itxi baino lehen ezin izan dugu emaitzarik eskuratu.

Jokatzeo dituzten probak

Ez dira hauek jokatuko dituzten proba bakarrak izango. Hiru jardunaldi dituzte aurretik. Gaur, hilaren 28an, Ainhoa eta Leire Martinek 400 m. lau estilo proba izango dute. Ainhoak gainera, 50 m. bularra ere lehiatuko du.

Bihar, hilaren 29an, Etxeberriak 100 m. libre eta Leire Martinek 100 m. bizkar probetan egingo dute igeri.

Eta etzi, hilaren 30ean, Martin ahizpek 200 m. lau estiloan buruz burukoa izango dute eta Ainhoak 100 m. bular saioa ere izango du.

Itsas zeharkaldia

Itsas zeharkaldietan ere hitzordu garrantzitsua izan zuten hilaren 23an, Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia. Lasarte-Oriako zein Buruntzaldea IKTKo ordezkariak izan zen infantil mailan eta proba nagusia. Infantil mailako 400 metroko lehian Patxi Arzallusek hamahirugarren postuan amaitu zuen, 09.08ko denborarekin.

Getaria eta Zarautz arteko 2.850 metroko bidea egin zuten herritarren multzoa ugariagoa izan zen eta asko Buruntzaldea IKTKo kideak dira: June Lopez (39.20), Juan Vicente Martin (39.41), Itsaso Tolosa (39.50), Joane Arzallus (41.13), Miren Sarobe (42.25), Igor Amantegi (42.58), Asier Gorostegi (44.09), Laura Igea (47.00) eta Adrian Garcia (48.37). Horiez gain, Garikoitz Lopetegui (39.35), Jorge Humberto Melillo (49.01), Xabier Rekondo (50.44), Idoia Recondo (52.32) eta Patxi Nevado (54.04) herritarrak ere izan ziren. Lan bikaina egin zuten guztiek.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

IGERIKETA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo Garazi Etxeberria eta Bidasoa XXI taldeko Leire eta Ainhoa Martin Espainiako txapelketa lehiatzen ari dira.

Igandera arte. Malaga, Andaluzian.

ATLETISMOA

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Osatdar SKTKo Naroa Furundarenak absolutu mailako jauzi hirukoitzeko proban parte hartuko du Espainiako txapelketan.

Igandea. 19:15. Torrent, Valentzian.

ARRAUNA

EUSKOTREN LIGA

Euskotren Ligako traineruek Getxoko Estropaden XV. Ikurriña - J.A. Agirre Lehendakariaren XIX. Omenaldia jokatuko dute.

Larunbata. 17:30. Getxo, Bizkaian.

Herriko arraunlariak kide duten Donostia Arraun Lagunak eta Hondarribia Bertako Igogailuak eskifaiek San Juan de Dios ospitala ikurriñan parte hartuko dute.

Larunbata. 11:25. Santurtzi, Bizkaian.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Udako denboraldiko jardunaldia jokatuko dute.

Igandea. 17:30. Hipodromoa, Donostian.



Artetxe (bigarrena ezkerretik) eta Ugalde, final laurdena jokatu baino lehen. RUFINO REKALDE

Artetxe Zikuñaga Papelerako finalerdira iritsi da

Intzako pilotaria eta Oiarpeko Ugalde finalean egoteko borrokatu dira. Juniorrak ezin izan dira azken fasean sartu

Txintxarri

Hernaniko Zikuñaga papelerak lehiaketa aurrera doa. Senior mailan Jon Pello Artetxe herri-tarra finalaurretara iritsi da.

Intzako pilotariak eta bere bikote Oiarpeko Ugaldek txapelketa porrotarekin hasi bazu-

ten ere, final laurdenetarako sailkatu ziren lehen fasean bi garaipen erdietsi ostean. Hilaren 14an, Gaztelekuko Eskudero eta Usandizaga garaitu zituzten, 18-16 eta 19an, aldiz, Jara eta Lizeaga hernaniarrak hamalau tantotan utzi zituzten.

Final laurdena hilaren 22an jokatu zuten eta EPLEko Olai-zola eta Aranburu bikoteraren aurka neurtu zituzten indarrak. Nagusi izan zen herriko pilotariaren bikotea; 18-7 gailendu ziren.

Finalerako azken pausoa Intxurreko Urkizu-Irazustabarena bikotea izan zuten aurkari, hilaren 27an. Edizio hau itxi baino lehen partida jolasten ari ziren eta ezin izan dugu emaitzarik eskuratu.

Neurketa gaindituz gero, hilaren 29an, txapelketako finalean izango dira. Jardunaldia goizez izango da eta Hernaniko Salaberria eta Pagazpeko Urruzola izango dute zain garaikurra nork eramango duen erabakitzeke.

Ezin aurrera egin

Intzako jubenil bikotea, aldiz, lehiaketatik kanpo geratu zen hilaren 14an. Haritza Diaz de Gereñu eta Peru Urdanpilletak Hernaniko Manterola-Alegria bikoaren aurka lehiatu ziren eta 18-14 gailendu zen aurkaria.

Bi neurketa galduta jubenilak ezin izan dira bigarren fasean sartu.

Realarekin debutatu du Jon Martin lasarteoriatar gazteak

Sanseko jokalaria Euskal Herriko Txapelako finala eta Sporting de Lisboaren aurkako lagunartekoa jokatu ditu

Txintxarri

Real Sociedad futbol taldeak denboraldiaurreko lehen hitzorduak izan ditu azken astean. Emaitzak aurkako izanagatik, talde zuri-urdinak baditu itzaropenerako arrazoiak; besteak beste, harrobiko gazte ugari lehen taldearekin debuta egin izana. Horietako bat izan da Jon Martin 17 urteko lasarteoriatarra.

Hilaren 21ean, Euskal Herriko Txapelako finala jokatu zuten Realak eta Osasunak, Irungo Gal estadioan eta erdiko atzelariak Aritz Elustondo ordezkatu zuen 72. minutuan. Hilaren 25ean, Sporting Lisboaren aurka lagunartekoa jokatu zuen Realak eta bigarren zatian sartu zen herri-tarra lehiara.

Harrobiko bitxietako bat

Donostiarren harrobiko bitxietako bat da Martin. Horren erakus-



Martin, jokoan. REAL SOCIEDAD

garri, oraindik jubenilen kategorian lehiatzeko adinean egonda ere, Realaren bigarren taldera igo dutela. Sansera. Joan den astean ekin zioten denboraldiaurreari, Sergio Francisco entrenatzailearen agindupean. Hilabete pare bat lehenago, Espainiako selekzioarekin aritu zen herritarra, 17 urtez azpiko Europako txapelketan.

ZORION AGURRAK



Nerea
Zorionak Nerea! Santa Ana eta San Joakinek esan digute eguzkiari itzuli berri bat eman diozula! Ondo ospatu izana espero dugu! Zure lankideak.



Haritz
Zorionak Haritz! Ondo pasa zure hamargarren urtebetetzean. Muxu handi bat etzekoen partetik!



Malen
Zorionak printzesa!!! Oso ondo pasa zure bostgarren urtebetetzean. Muxu pila bat familia guztiaren partez.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitarakoak, baita jaioberriak ere

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurra.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioa betez.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 28



Larunbata, 29



Igandea, 30



Astelehena, 31



Asteartea, 1



Asteazkena, 2



Osteguna, 3



Jaio da!

DEITU 943-37 14 48 TELEFONORA, BIDALI HAURRAREN IZEN-ABIZENAK ETA JAIOTZE DATA TXINTXARRI@TTAKUN.EUS HELBIDE ELEKTRONIKORA EDO 688 68 35 10 WHATSAPP ZENBAKIRA.

SUDOKUA

							6	4
1		3		9				
	8	6				9		
		8		2		5		
9				4				
	7				8	1		
			5		2			
5	6	2				3	1	8
			1		3		7	5

Sudoku10.net

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

ESKUTITZAK

Atal honetan eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etortzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora bidaltzea edo WhatsApp erabiltzea, mezu bat idatzita 688 68 35 10 telefono zenbakira. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

Sari ederra jaso dute

Avenida taberna-jatetxeko menu berezi goxo askoak irabazi dituzte Nieves Civicos eta Iñigo Gomezek, sanpedroetako argazki lehiaketako garaileek. Gomezek jaso ditu sariak, establezimenduko jabe den Yon Mikel Rodriguezen eskutik. Eskerrik asko Yon, eta irabazleoi, on egin! Oporretatik bueltan lehiaketa gehiago antolatzen jarraituko dugu, beraz, adi egon eta udara on guztioi!



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garaje marra alokatzen dut Urdaneta eraikinean, beheko solairuan. Sarbide eroso. Harremanetarako zenbakia, 620 18 87 87.

LANA

ESKAINITZA

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVa info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume eskaldun baten bila gabe. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo

nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas, Iñigo Garcia, Nikola Iraola eta Xuban Urdalleta.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua:
SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Dantza

Ertza dantza taldeak *Otempodiz* ikuskizunaren emanaldia egingo du. XIX. Dantza Zirkuituaren barruko jarduera da. Sarrera, doan.
Okendo plaza, 19:00etan. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarte institutuko Landaberi eraikinean.

ZUBIETA Jaiak

10:00etan, jolasen hasiera.
14:00etan, umeen bazkaria: bakoitzak bere jana eta edana eman behar du. Postrea eta sorpresa, antolatzaileen kontura.
16:00etan, jolasen jarraipena. Ondoren, txokolate jana, buruhandiak eta diskofesta.
Zubieta, 10:00etatik aurrera.

LARUNBATA 29

LASARTE-ORIA Musika

Kultur Kale Zikloa egingo dute: Grezian, Iluna eta Luca Grassi & Groove Band taldeek joko dute. Sarrera, doan.
Tximistarreta, 18:30etik 22:00etara.

ZUBIETA Jaiak

12:00etan, sagardo dastaketa eta pintxoak, Errebote plazan.
14:00etan, jubilatuen bazkaria, Yoko Garbi elkartearen.
15:00etan, bazkari herrikoia, eta, ondoren, bingo musikatua.
17:30ean, *desafiyua*.
19:00etan, sardina eta piper jana, Ankoker taldeak girotuta.
23:00etatik aurrera, kontzertuak: Des-Kontrol eta Rukula. Amaitzean, DJ Ertz, txosnetan.
Zubieta, 12:00etatik aurrera.

IGANDEA 30

LASARTE-ORIA Jaiak

Basaundiko auzotarrek saninazioak ospatuko dituzte:
13:00etan, txalapartariak, auzoko plazan.
14:00etan, paella jan herrikoia, plazan. Tiketak Oriatxiki tabernan eros ditzakete herritarrek, 10 euroren truke.



LASARTE-ORIA Jaiak

Basaundiko auzotarrek saninazioak ospatu dituzte. Txalapartariekin hasi eta DJ Naken-en emanaldira bitarte makina bat jardueraz gozatuko dute, auzoko plazan eta inguruetan.
Etzi eta etzidamu, hilak 30 eta 31, Basaundi auzoan, egun osoan zehar.

16:00etan, mus txapelketa, plazan. Bikoteek ordu erdi lehenago izan eman beharko dute, 10 euro ordainduta.
17:00etan, apar festa, teniseko pista.
18:00etan, ur jolasak, Ori Txiki parkean.
19:00etan, zunba eta bodycombat saioa, auzoko plazan.
19:30ean, Oaintxe in deu! txarangaren emanaldia, plazan eta inguruetan.
23:00etan, Ibai Berriak taldearekin dantzaldia, plazan.
Basaundi auzoa, 13:00etatik aurrera.

ZUBIETA Jaiak

16:30ean, mus txapelketa. Izen ematea, ordu erdi lehenago.
18:00etan, herriko gaztetxoaren Joko Garbi erakustaldia, Errebote plazan. Ondoren, buruhandiak.
20:00etan, bingoa.
00:00etatik aurrera, kontzertuak: Asgarth, Gozategi eta DJ Fantasia.
Zubieta, 16:30etik aurrera.

ASTELEHENA 31

LASARTE-ORIA Jaiak

Basaundiko auzotarrek saninazioak ospatuko dituzte:
09:00etan, martxa erregulatua, auzoko plazatik abiatuta.

10:30ean, diana, herriko txistulari taldearekin.
11:00etan, haurrentzako jolasak, plazan.
12:00etan, buruhandiak, plazan eta inguruetan.
12:00etan, meza, Karmengo kaperan.
12:30ean, bote eta toka txapelketa, plazan.
16:00etan, aldibereko xake partidak, haurrentzat, plazan.
17:00etan, gaztelu puzgarriak, haurrentzat, plazan.
17:30ean, haurrentzako askaria, plazan.
18:00etan, patata tortilla txapelketa, plazan.
18:30ean, txapelketara aurkeztutako tortillak dastatuko dituzte, plazan.
19:30ean, DJ Nakenen emanaldia, plazan.
Basaundi auzoko plaza eta ingurua, 09:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Urteurrena

Lasartearra elkarteak 50 urte beteko ditu hilaren 31n, astelehenarekin. Hori ospatze aldera, jai txiki bat egingo dute bazkideek, antolatzaileek iragarri dutenez. Irailetik aurrera jarraituko dute mende erdia bete izana ospatzen.
Erribera kalea 10, egun osoan zehar.

txintxarri

Oporretara goaz!

Hurrengo TXINTXARRI aldizkaria irailaren 8an kaleratuko dugu.

Oharrak, zorion agurrak, gutunak... bidaltzeko:
txintxarri@ttakun.eus

• 688 68 35 10



KOMERTZIO TXIKI

HERRI HANDI

LASARTE-ORIA

GREMIOAK



BARNE-DISEINUA

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE ERABERRITZEAK

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
 - AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
 - HORMA-ARMAIRUAK
 - MARKA GUZTIETAKO ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

Pintore kalea 5
Lasarte-Oria
Tel: 943-361 471
www.sugatecocinas.com



ITURGINTZA

ELOLA
ITURGINTZA

ITURGINTZA | GASA BEROKUNTZA | ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA

Galdara, berogailu eta termo ordezkapenak

Tel: 608 76 00 06
elolaiturgintza@gmail.com
LASARTE-ORIA



IGELTSERITZA

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra



- BARRUKO BERRIKUNTZAK
- TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILEAREKIN VIPEQ F08 ETA S.A.T.E. SISTEMA
- BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA EGUN BATEAN
- GREMIOEN KOORDINAKETA

Tel. 693 05 93 92 - 943-56 66 40
uraitz@uraitz.com - www.uraitz.com
Hipodromo etorbidea, 10 LASARTE-ORIA



ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
 - TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21
600 85 75 86 www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com



KRISTALDEGIA ETA LEIHOAK

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
 - Beira bikoitza
 - Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
 - Ispiluak
 - Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943-37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com



PVC eta ALUMINIOZKO LEIHOAK
Pertsianak, motorizazioak,
barandak, toldoak, armairuak,
eltxo sareak eta gehiago...

☎ 943-36 64 95
ventanas_isu@hotmail.com

Kale Nagusia, 46 behe.
LASARTE-ORIA
Tailerra: Pol. Ugaldea 21, 6.lokala
USURBIL



ZURE NEGOZIOA IRAGARRI NAHI DUZU HEMEN?

PUBLIZITATEA@TTAKUN.EUS | 646 82 44 66